

Orendain

Herriaren etorkizuna ziurtatu nahian

Etxebizitzak egingo dira, herriko gazteek bertan bizitzeko aukera izan dezaten

ORENDAINEN eraikiko diren etxebizitzaren artean, herriko plazatik beheraxeago Udalak kudeaturiko bederatzi etxe daude. Horretarako Udalak lurak erosi eta azpiegitura guztiak jarri ditu, herriko gazteek merke erosteko aukera izan dezaten. Nahiz eta herrikoek lehentasuna izan, kanpokitik egindako eskaerak ere aukera izango dute etxebizitza horiek eskuratzeko. Herriko gazteak herrian bertan geratzea da ekimen honen helburua, herriari bizitasuna eman diezaioten. Aintzat hartu behar da Orendainek 150 biztanle inguru baino ez dituela.

Etxe horiez gain, frontoi berriaren ondoan gehiago ere egingo dira. Higiezin enpresa batek bi familiarentzako hamar etxebizitza eraikiko ditu; horiek Udalak kudeatutako etxeak baino garestiagoak izango dira.



... Hogei etxebizitza berri egiteko proiektua dago herrian.

EGUNKARIA

Berrobi

■ 'Berrobi' berri aldizkaria kaleratu dute

Herriko albisteak, historia, antzinako kontuak eta urteko gora-beherak jaso dituen aldizkariaren lehen zenbakia kaleratu zuten Berrobin, Sanagustin festetan. Berrobi berri izenez bataiatu dute aldizkaria, Berrobizar, herriko baserri zaharrenari omen egitearren batetik, eta herriko berri emateko sortua delako bestetik. Lehenbiziko alean, besteak beste, Begi-Gorri gaztetxearen zabal-tzea, herriko pilotaren historia edota Udalaren etorkizuneko asmoak jorratu dituzte.

Belauntza

■ Etxe berriak

Egoarren etxebizitzak eraikiko dira, eta Belauntzako Udalak ura, argia eta saneamenduak jarri ditu. 14 etxe eraikiko dira —batzuk dagoeneko eginak daude—. Bigarren fasean etxe gehiago egingo dira, baina pribatuak. Etxe horietan kanpotarrak biziko dira, eta, alkatearen hitzetan, ona da herriak bizirik iraun dezan. Era berean, alkateak Diputazioaren eragozpenak salatu ditu, atzera bota baitzuen lurren berkalifikazioa, hiri-gunean ez zeudelako.



**BERROBIKO
UDALA**

EUSKERA ETA EGUNKARIAREKIN !!!

**BELAUNTZAKO
UDALA**



EGUNKARIAREKIN BAT !!



**OREDAINGO
UDALA**

Baso eta mendi, baso eta zelai,
hementxe bizi gara pozik eta alai.
Euskara hitz eginez. Bai aste eta bai jai.
Euskara da hizkuntza geroan ere bai.



GAZTELUKO UDALA

Euskara eta Egunkariarekin

Tel.: 943 67 58 97 - Faxe: 943 67 44 48 - GIPUZKOA



**BALIARRAINGO
UDALA**

Egunkaria,
Euskal Herriko
euskaldunon
Egunkaria



**ABALTZISKETAKO
UDALA**

Hizkuntza da herri batek
duen oinarria
beraz jarri dezagun
gure indar urria.

**I. IRAZUSTA
PINTOREA**

- Obra mota guztiak
- Eskatu aurrekontua

Konpromezurik gabe !

Tel.: 659 57 59 78
Julian Gayarre, 29
20400 IBARRA